

a . s . t . e . j . o . r . r . a . n



**Eneko
Oregi Goñi**

.....

Politika egiteko,
herrigintzarako eta
aberrigintzarako
gardentasuna, koherentzia
eta tinkotasuna ez dira
umekeriak, bide egoki eta
baliagarria baizik. Bakea ez
den bezala koldarkeria,
gure Herriaren kinkak
eskatzten duen adorea
eta ausardiaren emaitza
baino

.....

Botu baliagarria... zertarako?

Hauteskunde-kanpaina bukatua duzu honez gero, irakurle, eta hausnarrean egon beharko zenuke, legea beteaz, lerro hauek irakurtzeaz bat. Gogo-jardun horretan jarraitu, bada, eta onerako izan dadila!

Kanpaina benetan nahasia izan dugu, alajaina, bart bukatu berri dena! Gonzalezen eta sozialisten aroaren amaiera iragarriak eta Aznarren igoera aldarrikatuak urduritasun eta egonezin ugari sortu dute. Euskal Herrian, berriz, ENAMen eskaladak.

Kanpainaren lehen astea bideoen borrokaren inguruan eman genuen: sozialisten bideoa, Estatuan, eta HBrena, bertan. Topiko bilakatu da honez gero kanpainen eduki-ezaren salaketa, hauteskunde-mezuen mami falta eta benetako eztabaida gabezia. Ezin ukatu hori horrela ez denik, kanpainetan alderdien estrategiak nabarmentzen baitira, elkarreriko jarrera-jokaerak, eta ez, demokraziaren teorikoren batek nahi lukeen bezala, ideien erkatze huts eta hotza, ariketa arrazional soila eta erabaki zentzuzkoa.

Horrela, sozialista eta popularrak, Espainian eta hemen, hautabide bakartzat aurkeztu dituzte beren buruak, beldurra eta mespretxua haizatuz eta herritarrak, erakarri baino areago, bestea-rengandik uxatu nahiz. Euskal

Herrian, edo Hiru Probintziotan bederen, Nafarroan oso gutxi nabarmendu baitira, ENAMEkoek beraien eta gizarte osoaren arteko polarizazioa ezarri nahi izan dute, eta baita lortu ere. Hilketek, bahiketek, kale-istiluek, bideoak berak eta HBko eledunek kanpainari eman dioten kutsu erasokor, bortitz eta amorratuak giroa zeharo gaiztotu dute.

Bigarren astea, berriz, albo-koari botuak kentzen eman dute alderdiek: sozialistek ezker-batukoei, jeltzaleek eusko-alkartasunakoei, popularrek jeltzaleei, eta abar. Joan den astean orrialde honetantxe hautagai gipuzkoar batek jaulkitakoak ez dira adibide txarra: abertzale demokraziazaleen botuak elkartu beharra eta Madrilen elkarrekin etxealde jokatu beharra. Laster jaso zuen, haatik, erantzuna, hots, Kongresuan autodeterminazioaren alde lankidetzarako deia. Ez, ordea, Aznarri botua emateko, ez mahai-azpiko tratuetan 10 urtean zehar autogobernua izoztuta edukitzeko, ez askatasunaren aurka (Corcuera Legea), ez ustelkeria babesten (isileko diruen ikerketa), ez estatuterrorista ahazten (GAL batzordea), ez ekonomia-politika okerra laguntzen eta ez horrelako hainbat eta hainbat gaitan Euskal Herriaren eta euskal herritarren nahi, interes eta etorkizunaren aurka jokatzeko.

Eta hori ez da itsukeria kontua, garbi-keria antzua edota demagogia hitsa. Politika egiteko, herrigintzarako eta aberrigintzarako gardentasuna, koherentzia eta tinkotasuna ez dira umekeriak, bide egoki eta baliagarria baizik. Bakea ez den bezala koldarkeria, gure Herriaren kinkak eskatzten duen adorea eta ausardiaren emaitza baino. X

periodikua leituz
ilustratzen gara

Koloreak aterata

Gutxitan gertatzen da zuzeneko elkarrizketa batean —berdin da aurretik grabatua izan den edo ez— kazetaria eta elkarrizketatua, batik bat aurretik behin eta berriro kazetariak, irratilaria kasu honetan, elkarrizketatuarengatik bereak eta bidesan baldin baditu, *sintzeridatez* jardutea. Astearte gauean, azkenean, aurrez aurre egon ziren Jordi Pujol Kataluniako *Presidenta* eta Luis Herrero COPE kateko *La Linterna* saioko zuzendaria eta aurkezlea. Ezaguna da, irratisaioa segitzen duenarentzat, zein neurrigabeketa eta errespetu gutxiarekin aritzen diren saioko horretako aurkezlea bera eta tertuliakide gehienak Pujol eta berak egiten duen politikarengainean —hizkuntza eta kultur politikari dagokionez bereziki— iruzkinak egiteko orduan. Ahora datorkien lehen kalifikatiboa dedikatuta izan diote beti. Ez berari bakarrik, baina bereziki berari. Hauteskunde kanpainako elkarrizketen sailean egin zion elkarrizketa Herrero Pujoli. Elkarrizketa ondo joan zen herrik eta, bukaeran, Herrero Pujoli galdetu zion arte ea «oraindik indarrean dagoen» egun batzuk lehenago mitin batean Pujolek COPE kateari jarri zion betoa. Pukoli kosta egin zitzaion atakatik ateratzea baina lortu zuen. «Ulertuko duzu Herrero jauna CIUkoak, eta ez CIUkoak bakarrik, katalan asko ere bai, oso minduta egotea COPEk Kataluniarekin duen jarreraz. Kate honetan astakeria asko esan dira gure hizkuntza eta kultur politikari buruz eta horren ondorioz eskatu nuen mitin hartan kate hau, COPE, ez entzuteko». Herrero bistan zegoen, ez zion erantzun nahi izan eta nahiago izan zuen xaboi piska bat eman Pujoli erantzunean. Astebeterako bakea sinatu zutela eman zuen. Aurreneko aldia da elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua horren garbi hitz egiten ikusten —entzuten— ditudana.

Botere faktiko batetik, COPE, beste hiru-tara; baina Inaki Anasagastiren eskutik. Baina baino gehiago harrituko zen asteartean *El Pais*-en jeltzaleen Bizkaiko hautagaiari egin zioten elkarrizketa irakurritakoan, seguraski *botere faktikoak* bezalako esamoldeak ezkerrean ahoan ibili direlako beti. «PP interes bilduma gisa irudikatzen duzue?», galdetu zion kazetariari Anasagastiri, eta honek botorerearekin erantzun: «Laguntza aitortuena bilduma ere bada, Botin bezalako bankariak. Cuevas bezalako enpresariak eta Elias Yanes apezpikua ahaztu gabe, oso gizon eskisitoa nahi duenean, baina azkenean... Botere faktikoak indar handiarekin ari dira PP laguntzen».

Atzo goizean elkarrizketa egin zioten Felipe Gonzalez PSOEn hautagai nagusiari RN katean. GALena galdetu ziotenean «hori demokrazia guztietan gertatu da eta hamar urte pasatu eta gero inon ez lirerate horretaz ariko hemen ari garen bezala», erantzun zuen. Barrionuevarengatik ere aritu zen: «askatasunaren aldeko borrokalari handi bat». Barrionuevoren «askatasunaren borrokalari» dohainen gainean oso ondo, eta datu askorekin, hitz egin dezakete ostegunean Kuban hil zen Larrretxea 1983an Hendaian bahitzen salatuta ziren lau polizia espainiarrek. Asko lagunduta ziren Barrionuevok Paueko kartzelatik ateratzen, eta, auzitegira agertuko ziren hitza jan ondoren, bahiketa saio harengatik egin zen epaiketara ez azaltzen.

Martxelo Otamendi

H A R A ! Leize

